

Eskura ezazu katu bat!

Patrick Leigh Fermor Ingelesean egin den bidaia-literaturako idazlerik onenak kontatu zuen behin hego Grezia sakoneko Maniko itsas esaera baten jatorria. Bazen behin itsasontziko kapitain bat, bere itsasontzia arratoiz beteta zegoela ikusita, kezkatuta eta abade bati deitu zion eta hauek gaineratik kentzeko zerbitzu berezia egitea eskatu zion. Kantu egokiak abestu ziren eta apaizak brankatik popara bedeinkatu zuen itsasontzia. Ohiko tarifa eskuratu ondoren, kapitainari baieztatu zion berak ez zuela halakoekin arazorik izango: errituak ez du inoiz huts egin. "Baina, gauza bat badago", esan zuen abadeak. "Zer gauza, aita?". Apaizak bizardun burua itsas gizonaren belarriraino makurtu zuen eta zera murmurikatu zuen: "Eskura ezazu katu bat". Orduetik aurrera, "katua lortzea" itsasoan esan nahi du "gauza bat bitan bermatzea".

Hegoaldean gaude oraindik. Tancredi Falconeri zen El Gatopardoko fikziozko pertsonaia, Salinako printze hark honakoa ezarri zuen "Gauzak dauden moduan geratzea nahi badugu, dena aldatu beharra dago. Ulertzen?". Gatopardo horrek ulertu egin zuen eta gaineratu zuen Sizilia -eta irltako edo kontinenteko hegoalde osoa- loakartuta dagoen Europa dela, eta sehaska kulunkatzen duen eskuak umea lotan mantendu baino ez duela nahi. "Loa, Chevalley maitea, loa da siziliarrek gehien nahi dutena eta beti gorrotatuko dute iratzartzen saiatuko dena".

Espainia, Gatopardon erakusten den Sizilia bezala, lotan dago. Jendea, erdi lo dago eta gobernu aldaketa batek arazoak konpontzea espero du. Ez dute iratzarriak izan nahi. Politika gero eta urrunago dago eta horrengandik ez da ezer espero, miraririk ez bada. Arratoi itxurako langabezi gorakariaz, gizarte ondoezaz, polarizazio politikoz eta ziurgabetasun ekonomiko larriez kutsatuta dagoen oraingo egoerak hiritarrak eraman ditu politikatik aldentzea, eta honi lotzen zaio finantza publiko eta pribatuen egiazko egoeraren inguruko sinesgabetasuna.

Eta ez dugu ahaztu behar hau dena katua bere gobernu ekintzarako ikur bilakatu zuen espainiar presidentearekin hasi zela "katu zuria, katu beltza, berdin dio saguak harrapatzen baditu" esan zuen Txina gorrira egindako bidaiatik ondo ikasia etorri zenean. Eta, labiltasun hark eraman gintuen espekulazio inmobiliariora, asegabatasun finantzierora, industriaren laminaziora, eta eskusari gisa, Estatu krimenera. Katu lodi eta azeri-ergel deitu zion Ferlosiok orain adreiluaren plusbalioen babesaren energia konpainia bateko aholkulari gisa agertu den sebillar ausartari.

Ziurtasun bat hedatu da gu guztion artean: ez dago gorako aurrerapenik eta gure seme alabak, agian, gure gurasoen modura biziko dira. Eskasia ekonomikotik eta beheraldi orokorretik hurbil egongo den zerumuga hurbila antzeman daiteke, une egokia merkealdiko salbatzaileentzat. Salbatzaile berberak, ekonomian liberalak direnak eta beren espekulazioekin oraingo eskasiara ekarri gintuztenak. Gure istorioko popeak egiten duen eran, proposamenak egiten dituzte aurrekontuak mehetzeko neurri gehiagorekin, produktibotasuna eta lan bizitzaren luzapena aldarrikatzen dute, langabeziaren infernuarekin mehatxatzen dute, soldata eta gizarte zerbitzuak

murriztea eskatzen dute, osasun ordainketa partekatuak iragartzen dituzte. Otoia eta katua.

Euskadin, Espainian baino egoera hobea dago, langabeziaren erdia, zor publikoaren seiren bat, etorkin langabeen laurden bat, hura hemen gertatzerik ote dagoen galdetzen dugu. Eusko Jaurlaritzari begira, jasotako ondarea administratzen ari den ezereza, eta legerik produzitu ezean, xahutzen amaituko da.

Hemen, EAJk, derrigorrak bultzatuta, ideia bikaina izan zuen “oposiziotik gobernatuko dugu” eta horrela lortu zen katu bat. Lehenengo, Espainiar Gobernuarekin hitzartu zen Eusko Jaurlaritza hor zegoen arren. Hori ez zen Lopez Lehendakaria baztertzeko estratagema bat, beharra izan zen gobernu berriaren axolagabetasunaren aurrean. Gero etorri zen Ezker Abertzalearen buruzagitza politikoez militarrek ordezkatzearen ostean omen datorren eszenatoki berriaren aurreko jarrera.

Subiranotasuna/konstituzionaltasuna, negoziazio politikoa/legeen gogortzea bipolarizazioaren aurrean, EAJ erdiratu egin zen eta euskal Estatu gehiago lortzea: Estatutua beteta, zerga tresnen blindatzea eta gizarte laguntasuna defendatzea den korrante nagusia bereganatu zuen. Azken arlo hau ezinbestekoa da sozialdemokraziaren eta sozial-kristautasunaren artean dabilen arima politikoa duen euskal erkidegoan, baina kasu hauetan bietan, aldaezin mantentzen da gizarte arloa.

Bake prozesuari dagokionez, ene ikuspuntutik, EAJk ez dio begiratzen jaio berriaren irrikaz edo kaltetu izan daitekeenaren tentuz. Prozesuarekiko harremana izango da eskatzen zaionean lagunduko duen begiralearena, ez du egingo dena oztopatuko eta etorkizuneko bizikidetzarako onartezina den erresumina utz dezakeen emaitzaren kontra agertuko da.

Orain, EAJk bere ahaleginik handienak jarri ditu gizarte zibila indartzeko. Hau esaten dut ekonomian, kazetaritzan, esparru profesionalean, hezkuntzan, osasun arloan ardura tokiak eskuratu dituzten eta politika-erakunde zirkuitutik kanpo dauden alderdikide kopurua ikusita. Honakoa da “has gaitezen berriz”. Gobernutik kanpo hotza ez da hainbesterako, talentu pertsonala eta antolatze konfiantza uztartzen badira. Herria egiteko jatorrizko egitasmorako itzultzea da, gure burua egiten dugun bitartean. Azter itzazue Think Gaur Nafarroa egitasmoaren ondorioak, esaten ari naizena egiaztatzeke.

Ondo daude otoitzak eta printzipio handiak deitzea, baina... eskura ezazue katu bat. Badago bat eskarmentuduna, arina eta saguak harrapatze prest, otoiak eznahiko gertatzen direnean. Soberan ezagutzen dute. Zergatik bere izenaz deitu?

Txema Montero, abokatua

Noticias Taldeak argitaratutakoa